

2016EKO OTSAILAREN 4AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Laua.

HILABETEA: Otsaila.

URTEA: Bi mila eta hamaseia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe.

BILDUAK: Leire Artola Ugalde

Malu Valles Fernandez

Koldo Agirre Mujika

Miren Amaia Barandiaran Velez de Mendizabal

Santiago Urdampilleta Dos Santos

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2016ko urtarrilaren 7ko akta onartzea.

2016ko urtarrilaren 7ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA: Igartza monumentu multzoaren kudeaketa eta ustiapena.

Ezagutzera eman da 2016ko urtarrilaren 25eko Kultura Batzordearen proposamena, hau da:

Lehenik. 2014ko apirilaren 16an, ALDABE KOOPERATIBA ELKARTEAekin bi urtetarako, Igartza multzo monumentala ustiatzeko eta kudeatzeko sinatutako kontratua ez luzatzea. Horren ondorioz, 2016ko apirilaren 16an, aipatutako kontratua amaitutzat emango da.

Bigarren. Litzitazio berri bat egitea onartzea, deialdi publikoa eginez, horretarako baldintza pleguak onartuz. Baldintza pleguaren ezaugarri berezienak ondorengoak dira:

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetza: arrunta

3.- Licitazio prezioa: 65.403,02 € gehi BEZ urtero

4.- Kaudimen ekonomikoa:

- Finantza-entitate batek igorritako lizitatuzailearen kaudimen-adierazpena.
- Arrisku profesionalagatik ordaindu beharreko kalte-ordainen aseguruua, gutxienez 601.012,10€koa edo kasua bada, kontratatze konpromisoa esleipenduna izanez gero.

5.- Kaudimen profesional aedo teknikoa:

- Kontratuan parte hartu behar duten enpresaren barne edo ez dagoen pertsonal tekniko edota unitate-teknikoen adierazpena.
- Enpresariaren eta enpresa zuzendaritzaren titulazio akademikoak eta zehazki kontratua exekutatu behar dutenena, hau da:
- Euskaraz ahoz komunikatzeko gaitasunari (3. hizkuntza eskakizunarien baliokidea) dagokion akreditazioa. Xehetasun hau Udal Euskaltegiak baieztatuko du, B kartazala irekia urretik.
- Azken bost urteetan emandako zerbitzu edota lanen zerrenda, kopuruak, datak eta lan horien jasotzaile publikoa nahiz pribatua azaltzen duena. Jasotzailea sektore publikoaren entitatea denean, egindako lanak eta emandako zerbitzuak eskumena duen organoaren ziurtagiriekin egiaztatuko dira. Jasotzailea pribatua denean, honek emandako ziurtagiri batekin edo hau falta denean enpresariaren aitortpenarekin. Kasua bada, ziurtagiri hauek eskumena duen autoritateak, kontratazio organoari jakinaraziko dio zuzenean.

6.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 40 puntu
- Jarduerei buruzko memoria: 40 puntu.

Hit egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) jaunak esan du proposamenaren aurka azaltzen dela, Kulturaren ez zaiolako informazioarik ematen eta ez zailako ezertxo ere itzultzen.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Gu ere aurka gaude. Gure ustetan kudeaketa zuzena izan beharko litzateke. Bestaldetik ez dugu ulertzen kontratu luzatzeko aukera egonda eta arazorik ez egonik, zergatik ez den luzatzen.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Lunch”ei buruz idazkariak egindako txostena eta ALADABE berak tasak aldateko eskaera kontutan izanda, proposatu da kontratua ez luzatzea. Horri, ondorengo gehitu behar zaio: normalean %19koa den gastu orokor eta industriako onura, beraien kasuan ez da iristen ez da %1eraino. Eskaera beraiena izan da eta aukera horretaz baliatu gara, pleguaren hainbat xehetasun hobetzeko.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU) esan du beraiei ez zaiela informazio hori guztia eman.

Ezagutzera eman da, Kulturako teknikariak emandako txostena non aipatzen da, esandakoaren berri 2015eko uztailaren 20ko kultura batzordean eman zela.

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) berriro esan du berak ez duela informaziorik.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 3 (Beasaingo EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Berdinketa dagoenez, bozketa errepikatu da eta emaitza berdinen aurrean, Alkateak bere kalitate botoa erabili du eta horren ondorioz, proposamena onartu egin da.

3.- KONTRATUA LUZATZEA: Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko eta laguntza emateko zerbitzua.

Hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- 2010eko ekainaren 28an Gobernu Batzordeak erabaki zuen, prozedura irekiaren bidez, Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratu administratiboa.

II.- Kontratazio mahaiak, 2010eko urriaren 22an egindako bileran, proposatu zuen Beasaingo udalaren zergak ikuskatzeko eta laguntza zerbitzua GEMUNPAL, S.A. enpresari esleitzea.

III.- Bi mila eta hamaikako otsailaren 4an aipatutako lanak egiteko kontratu administratiboa sinatu zen ondorengo baldintzetan:

Prezioa:

1.- Egiaztatua eta ados bukatzen diren espedienteak: 0 €, ikuskatu den espediente bakoitzeko.

2.- Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-errolde-tara sartzea suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenak: ageriko kopuruaren %70a.

3.- Ikuskapen prozeduran likidatutako eta ageriko kopuruentzat (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna errolde-tara sartzea suposatzen ez dutenak, noizik behin zergapeko egitateak direlako eta banaka eta errepikatu gabe debengatzen direlako: ageriko kopuruaren %35a.

Diru kopuru hauetan BEZa ez dago sartuta.

Epea: lau urtetakoa izango da, kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita (2011-2-4) eta beste bi urtez luzatzeko aukera izango da, Administrazioak espresuki horrela erabakitzen badu.

IV.- Ondoren, Gobernu Batzordeak 2013ko martxoaren 22an kontratua aldatzea erabaki zuen, Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-errolde-tara sartzea suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenetan, ageriko kopuruaren %60a prezioa izanez.

V.- Gobernu Batzordeak, 2.015eko otsailaren 2an, aipatutako kontratua lehenengoz urte betez luzatzea erabaki zuen.

Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordeak Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo akordio

PROPOSAMENA

Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratu administratiboa beste **urte batez** luzatzea, 2016ko otsailaren 4tik kontatzen hasita.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, Alkate jaunak (EAJ_PNV) hainbat informazio eman du:

GURE ESKU DAGO. Talde politiko guztiei deialdia bidali die, 2016-02-11n, 19,00etan bilera egiteko.

ELKARKIDETZA. Plenoko gai-zerrendan sartuta dagoen ELKARKIDETZari buruzko gaia, 2012ko irailetik 2013ko abendura arte ordaindu gabeko ekarpenak egiteri buruzkoa, mahai-gainean uztea proposatuko da, 2015ean emandako sententzien arabera, ekarpen horiek soldata-masaren barruan daudelako eta ekarpen horiek egiten badira soldata-masa, legeak baimentzen duena baino gehiago gehituko litzatekeelako.

UDAL ANTOLAKETA. Alkate jaunak (EAJ-PNV), esan du udal antolaketan (batzorde informatiboen egitura) aldaketak egitea aurreikusten dela eta antolaketa berri hori lantzeko, koordinazio talde bat sortu dela eta pausoak ematen diren heinean informazioa emango dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta berrogeita hamabost minututan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.